



EBAZPENA, 2016KO AZAROAREN 18KOA, HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILEKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA, HEZKUNTZA IKUSKARITZAKO ZONALDE BURUTZAKO FUNTZIOAK ESLEITZEKO DEIALDIA BEHIN-BEHINEKOZ EBAZTEN DUENA.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2016ko irailaren 22ko Ebazpenaren bitartez deialdia egin zen Hezkuntza Ikuskaritzako Zonalde Burutzako funtzioak esleitzeko.

Deialdiaren seigarren puntuaren arabera, Baremazio-Batzordeak izangaiek deialdi honetako betebeharrak betetzen dituzten egiaztatu ondoren, eta merezimenduak barematu eta elkarrizketa baloratu eta gero, deialdiaren behin-behineko ebazpena jarriko da jendaurrean Saileko web-orrian; halaber, erreklamazioak egiteko hiru egun balioduneko epea zabalduko da.

Horiek horrela, baremazio-batzordeak egindako Ebazpen-proposamena ikusita, hauxe,

EBATZI DUT

Lehena.- Hezkuntza Ikuskaritzako Zonalde Burutzako funtzioak behin-behinekoz esleitzea hurrengo ikuskariei:

- ARABA 1:** Juan Mesanza, Ricardo
- BIZKAIA 1:** Etxebarria Etxebarria, Xabier
- BIZKAIA 2:** Valencia Monreal, Eduardo
- BIZKAIA 3:** Bonet Romero, Manuel
- BIZKAIA 4:** Fernández Oregui, Maria Carmen
- GIPUZKOA 1:** Fernández Gutiérrez, José Antonio
- GIPUZKOA 2:** Eguizabal Luzuriaga, Fco. Javier
- GIPUZKOA 3:** Unamuno Arruti, M. Agurne

Bigarrena.- Ebazpena Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko web orrian argitaratzea I. Eranskinean agertzen diren eskatzaileen behin-behineko puntuazioekin.



Hirugarrena.- Interesatuek euren eskubideei egokitzen zaizkien erreklamazioak egin ahal izango dituzte hiru egun balioduneko epean, Ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko azaroaren 18a

KONRADO MUGERTZA URKIDI
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA

